

Arrasate

P R E S S

1996ko
Urriak 25
337. zenb.

**Txernobilgo
umeekin
elkartasuna
Arrasaten**

Shasha, Txernobil
Elkartearen bidez
Arrasatera
etorritako neskatia.



PARDO *estetika zentroa*

- **DEPILAZIO PROGRESIBOA**
- **DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN**
- **SOLARIUMA (DUTXAREKIN)**
- **SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA**
Dieta personalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

- **AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK**

Drainaketa linfatikoa.
Erreafirmatzailea.
Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
Antizeluliti murriztailea.
Mantenimendua.

DEPILAZIO ELEKTRIKOA, BEHIN BETIRAKOA

Iparragirre enparantza, 4 behea. Grupo San Juan
Tfnoa: 79 52 17 • ARRASATE



- **Blend metodoa**
- **Sonda metodoa, minik gabekoa.**



ALTZARIAK *Berango*

- **Bainu altzariak**
- **Armairu enpotratuak**

Bainu eta osagarrietan aukera zabala.

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea • ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92

Arrazakeria non?

Epe labur batean *Arrazakeriaren aurka* konzientziatzeko ekitaldi errebindikatibo multikultural batzuk egiteko asmoa dago Arrasaten, horretarako jadanik bilera batzuk egiten ari dira. Nik, momentuz parte hartu ez dudan arren, oso positibotzak dauzkat helburu horiek.

Hala ere, nire ustetan, guztiok dauka-gu nolabaiteko arrazakeria gure baitan, beharbada gutxitan edo inkonzienteki kanporatzen duguna. Esan nahi dudana zera da: kasu serio edo erreala aurrean eduki artean inor ez garelara arrazista.

Gure taldekoak ez direnen aurrean ixtea eré, arrazakeria da. Gure eta beraien arteko desberdintasun hori praktikan hain gogor sentitzea, alegia. Egia da baita, eta hauxe gehienbat (baina ez bakarrik) beste kulturenganako, sarritan ezagutzen ez digunak beldur pixkat ematen digula; eta beldur horren eta ezjakintasanaren eraginez, gauzak imajinatu, asmatu edo exageratu egiten ditugula, baita, oinarrian kultura antzekoak baditugu ere. Adibidez, zenbait herritan bertako jendeak Gaztetxe batean egon edota jasoko denari buruz hitzegiterakoan bezala, solasaldi hauetan funtsik gabeko milaka *disparate* esaten baitira.

Orokorrean ekintza arrazista handi gehienak jasotzen diren lekuetan, 3. munduko herrialdeetatik etorritako jende dexte bizi da, eta hauetako askotan, behar bada langabezia igo egin da azkenengo garaian. Bertakoek, errua kanpotik etorritakoei leporatzen diote, hauek bizi behar dutelarik, edozein lan, baldintza

eskasetan hartzeagatik, eta honela *bertakoek* lanpostu hauek galduz.

Fenomeno hau leku askotan gertatu den arren, ni ez nago guztiz ziur, bertakoak horrelako lanpostu batzuk betetzeko prest egongo lirakeenik. Argi dago gainera, konklusio horiek eskumako alderdi edo sektoreetatik jasotzen dituzte-la, kolpe batez bi efektu lor ditzaten: batetik langabezia eta bizi egoera baxua boterean daudenei leporatu beharrean, kanpotar eta txiroenak erruduntzat hartzen dituzte; eta bestetik, beraien herriak *garbitzen* dituzte eta poliziaren beharra justifikatzen dute. Manipulazioa hain argia bada ere, hainbat lekuko skin neonazien eta beraien printzipioen hedakuntza eta gorakada honetan datza. Bai Zaragozan, Bartzelonan, Madrilan eta Alemanian....

Euskal Herrian ezagunagoak egiten zaizkigun beste kutsu arrazista batzuk, kontestuz desberdinak badira ere, honako hauek izan daitezke, beste askoren artean: *maketo* eta *erdaldunen* roilo guzti hori, egia bada ere, honako askok non dauden asumitu beharko lukeela, kultura eta hizkuntzan barneratzeko ahalegin gehiago eginez. Hau, gazteen artean zeharo murrizta bada ere, nagusien artean bizitzeak *erakutsi* dienaren erruz, askok tinko diraute oraintxe azalduko desberdintasunei eusten eta ezin dute onartu, adibidez euskaldun batek extremeño batekin bizi nahi izatea.

Beste baterako utzi behar Zigarrola aldeko ijito haien asunto misterioitsua.

IKER BARANDIARAN

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

AZTERKETA
BAKAR BATEZ

25 urtetik gorakoa
bazara,
unibertsitatera
sarbidea

Lortu ezazu
FP-1 ageria

Eskola Grado Agiria
eskuratu ezazu

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura
Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohnati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

..... Idoia Lopez de Riañori

Euskal Herriari zabaldu-tako zure testimonio-mezuan, Osnyko gartzelatik, ahate pausuaz ibiltzera behartuta dauden girgilez, kataiaturiko zure oinez mina iristen zaigu. Pausu txiki eta oso azkarrak ematera behar-turik... eta pausu bakoitzean orkatilan mailukaden tankerako kolpeak sufrituz. Komeni denean, zinikoki, arbitrarioki, edozer gauza egin dezaketela uste duten, iraintzen eta sufriarazten duten txakur matoi, harroputzez inguratuta... zure sabel deformatuaren eko-grafia bat egiteko ospitale-tera zindoazenean.

Amorrua ernetzen zaigu zure idatziak esaten duenean "ez naiz animala bat, esku-bideak eta duintasuna ditut, eta honegatik eskatu nuen (ospitalean) pixa egitea bezalako gauza intimo bat uzteko, inork ere ez ninduela behartuko hori jende aurrean egiten, eta are gutxiago egoera horretan" (eskuburdinez ohearen hankari lotuta txakur bat balitz bezala).

Etika izutzen da medikuen eta pertsonal zibilaren pasibitatearen aurrean. Hauek gizatasunik gabeko aginduak onartu baitzituzten, Idoia jende guztiaren aurrean pixa egitera behartu zutenean. Idoiak zera dio telegrafiko-ki: "Egoera hori bizi egin behar da eta emakumea izan behar da nik sentitu nuena ulertzeko. Menstruazioarekin nengoen eta ez dizuet ezer gehiago zehazten.

Dena amaitu zenean, itzultzerakoan, berriz ere eskuburdinetatik tiraka, arropetatik tinko helduta, oso azkar eramateko tiratzen eta bultzatzen. Kamioian girgilak jarri zizkidaten berriz ere. Eta arakaldian biluziarekin gartzelara berriz ere itzultzerakoan izan nuen tra-

tamenduarengatik protesta-tzerakoan esan zidaten: hau Frantzia da, beraz euskalduna ez delarik. Osny girgilak beti eramango nituela esan zidaten".

Idoia bere komunikatu- zera baieztatuz amaitzen du: "nik nahi dudana egiten eragozten badidate ere, ez naute behartuko nahi ez dudana egiten. Girgilak eta kateak eramateko nere arbuioa argia eta erabatekoa izango da orain eta beti, behar den guztia ordaindu behar badut ere, nere duintasunari egin-dako minarengatik, pausu bakoitzak sortutako min fisi-koarengatik baino".

Idoia Lopez de Riañoren testimonioaren zatiak dira, Egizanez jaso dituenak, partidu, instituzio eta emakume taldeei azaltzeko, eta Osnyko gartzela frantziarrean sufritu dituen giza-eskubideen bortxaketa in situ kontrastatzerako gonbidatuz.... Eta eskatzen da bakoitzak bere lekutik salatu dezala eta posible den guztia egin dezala sufri-mendu, tortura eta irainen testimonio hau azkena izan dadin.

Erasoei erantzun! pasibitate- zana zanpatzaileen indarra da! Ukaezina, euskal presoak Euskadira!!

EGIZAN (ARRASATE)

..... Camel Trophy Arrasaten

Ez da gauza berria gure inguruan mountain bike zale asko dagoela esatea, eta kolektibo honek nahiago duela bide eta kaminoak erabiltzea errepidetik baino gus-tatzen zaiola. Norbait hurbiltzen bada Etxezarretako ingurura ikusi dezake nola geratu den hango bidea,

kamioiak edo traktoreak orain gutxi dela pasatu ondoren... Atilak pertsonalki txikizio ikastaro intentsiboa eman zuela ematen du!!

Optimista izaten, norbait laister konponduko duela suposatuz behar da, bestela hor dago eskaria dagokio-nari.

Amaitzeko gauza pare bat:

- Sta. Barbarako txabola berria nahiz eta batere gus-tatu ez, nire ustez ez dago ondo erretzea.

- Zer gertatuko da orain proiektu honekin? Aurrera badoa estetika hobeto lantzea merezi duela uste dut.

JUAN JOSE ZABARTE

..... Udalatxen inguruan gogoetak

Udalatxen gurutzia jarri zala 25 urte bete diren honetan, nahiko tristetute geratu naiz esan ez diren zen-bait gauzekin.

"Besaideko Udalatxzale-ek" ospakizun honetarako antolatu duten egitaraua guz-tiz txalotzekue izan da bene-tan, baine tamalez, zenbait erreibindikapenekin bat egin barik, hankamotz geratu da berau. Fetxa hori aprobetxatuz, hauek dira nire ustez kaleratu behar ziren gaiak:

- Udalatx magalian dago-en Lezetxiki kobaren egoera; laister batian kanterak desagertu araziko dau hain baliotsua dan ondare arkeo-logikoa.

- Kanpazar aldiaren dago-en kanteriak ere Udalatx barik utzi behar gaitu deskuidau ezkeru.

- Abiada handiko tren- Udalatx erdi erditik ei doia, honek ekarriko dauen desas-

triakin.

- Han goian erdi desager-tuta dagoen monastegiaren errekupezioa edo garbitzia (inplikaturiko guzti-ekin kon-sultatu ostian).

Gurutzia jarri zenetik 25 urte azkar pasa izan badira ere, ez dira alperrik pasa, eta urte guzti hauetan gizartean izan den garapenak (zibilizazioa) zenbait eragin zuzen izan ditu arlo guztietan, eta nola ez, Udalatxen ere bai. Udalatx hainbeste maitatu eta zaindu zuen "Erregetxo", aipatu pun-tuekin ere bat egongo zela-koan nago.

Mantendu ditzagun ohi-turak eta gorai-patu gure arba-soen lanak, baina begira deza-gun baita aurrera eta zaindu dezagun gure Udalatx, gure ondorengoak biadan moduan ezagutu deixien.

Ah!! eta bukatzeko, ohi-turen asuntiaz jarraituz, gure arbasoen hitza Udalatx barik Udalatx zela gogorarazi.

JOSU PEREDA

Txipiri, esker onez erantzunez

Arrazoi osoa zenuen zure azken eskutitzean eta horrela aitortu beharra dago. Jakin badakigu Udalatx dela eta ez Udalatx, baina ohi-tura txarrak baztertzea zaila dela ezin ukatu. Inprentara bidali ondoren konturatu ginen hanka sartzeaz, eta baita komentatu ere "laister da Txipiren gutuna". Santatxekoa, berriz, ezjakintasuna izan zen. Ez errepi-katzeko ahaleginak egingo ditugu.

Eskerrik asko irakas-gaiatik eta jakin "pito kasua" baino gehiago egiten diegula horrelako kontuei.

ARRASATE PRESSEKO
ERREDAKZIOAK

Hartuko zenuke Txernorbilgo ume bat zure etxean?



Toñi Morales
Ikaslea
(29 urte)

Nahikoa lan badut orain umeeekin, baina ez litzaidake arduratuko, gainera ez du kutsatzeko arriskurik eta ezer.



Ander Zubiarrain
Ikaslea
(18 urte)

Ez dakit, pentsatu egin beharko nuke, kanpoko bat etxean sartzea...



Arrate Manzidor
Etxekoandrea
(35 urte)

Bai hartuko nuke. Momentuan ume txiki bi ditut eta lanez lepo nabil, baina apur bat hazita baleude ez nuke eragozpenik izango.




Maite Arriaran
Langilea
(31 urte)

Bai, ez nuke batere arazorik izango. Hala ere ez dut sekula pentsatu.



Mercedes Torga
Etxekoandrea
(45 urte)

Ez dakit, pentsatu egin beharko nuke, etxean adineko jendea ere badut eta haiek zaindu beharra daukat.




Joxe Agirre
Jubilatua
(76 urte)

Nik bai. Etxean galdetu egin beharko nuke, baina neureratik bai.



Eugenio Garcia
Langilea
(30 urte)

Gurasoekin bizi naiz eta ez dakit zer esan, baina nire aldetik ez litzateke eragozpenik egongo.



Iñigo Zubia
Ikaslea
(19 urte)

Laguntzea gustatuko litzaidake, baina oraindik ez zait burutik pasatu.



Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?

OPEL 

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 34 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 25
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

Larunbata 26
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

Igandea 27
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 28
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

Asteartea 29
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 30
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Osteguna 31
 Egunez eta gauzez: Amezua. Santamaina.

25 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Cuando sali de Cuba" 7etan eta 10etan.
- **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**
 Taun Taun taldearen *Ubu Babel* antzezlana gaueko 10.30etan Amaia Antzokian. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

HELDUEN BERTSO ESKOLA

Datorren ostiralean, azaroaren 8an, helduen bertso eskolak hasiera emango dio ikasturteari arratsaldeko 8.30etan. Oraindik ikasle kopurua txikia denez izena emateko denboraz zaudete eta horretarako AEDra deitu, 77 12 28 zenbakira. Matrikula dohainik.

DANTZA KARIBIARRAREN IKASTAROA

Azaroaren 11tik abenduaren 11ra, astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara Musakolako Saloian. Irakaslea: Julio Lantigua. Prezioa: 4.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 2.500 pta.

ORKATZ SKAUT TALDEA

Orkatz Skaut taldea ikasturtearekin hasi da. Izena emateko larunbatetan Orkatzek Altamirako Jose Luis Iñarra kalean duen lokalera zuzendu. Orduetgia eguerdiko 12etatik 1.30ak arte.

26 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "El profesor chiflado" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ARTE MARTZIALEN ERAKUSKETA MUSAKOLAN**
 Aretxabaletako Hirugarren Munduaren aldeko taldeak antolatuta Aikido, Judo, Ninjutsu, Kung Fu eta Taekwondo erakusketa Musakolako kiroldegian arratsaldeko 3etan hasita.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 Su ta Gar, Ekon eta Big Whito taldeen kontzertua Arrasateko Gaztetxean gaueko 9etan. Sarrera: 500 pta. AGAKOk antolatuta.
- **IBERIAN BRASS TALDEA ATERPEN**
 Iberian Brass taldearen kontzertua Aterpe tabernan gaueko 10.30etan.
- **ANTZERKIA ESKORIATZAN**
 Txalo Produksioak *Xagu apia* antzezlana eskainiko du Eskoritzako frontoan gaueko 10.30etan. Sarrera 800 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.

27 IGANDEA

- **ZINEA**
 "El profesor chiflado" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **LEIXARGARATEKO TXABOLAREN ZILARREZKO EZTIAK**
 Besaidek Leixargaraten duen txabolak zilarrezko eztaiak bete dituzenez goizeko 11etan hamaiketako izango da bertan.
- **ARKU TIRAKETA ERAKUSKETA**
 Arku tiraketa erakusketa goizeko 11etan Musakolako kiroldegian. Sarrera dohainik. AUKEAK antolatuta
- **ESKOLA ARTEKO I. PERRETIXIKO ERAKUSKETA**
 San Viator ikastolak antolatuta eskola arteko I. perretxioko erakusketa Sebero Altube plazan goizeko 11etatik 1.30etara.

EMAKUME SAILEKO TOPAKETAK

Emakume saila ekintza positiboen plangintza ari da prestatzen. Plangintza hori aurrera ateratzeko astelehenero topaketak antolatu ditu, INEMek Arrasate Pasealekuan zuen lokalean. Orduetgia: arratsaldeko 6etatik 7etara. Lehen topaketan, urriaren 28koan hezkuntza gaia jorratuko da eta hurrengo bietan osasuna.

28 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "El profesor chiflado" 7etan eta 9.30etan.

29 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "El profesor chiflado" 7etan eta 9.30etan.

• **ARRASATE LEHIAKETEN 10. URTEMUGA**

Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa eta Arrasate Lehiaketen X. urtemugaren ospakizun ekitaldia. Partaideak: Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegietza Andoni Sagarna. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

30 ASTEAZKENA

• **MERKATARITZARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: merkataritza. Hizlaria: Pedro Acebillo (Bartzelonako Ineditos Viablen-en kontsultaria). Gaueko 8.30etan Alai zineman

• **KAFE TERTULIA**

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak kafe tertulia batzuk antolatu ditu asteazkenetan emateko. Lehenengo tertulian Karitas gaia jorratuko da: historia, programa desberdinak eta finantziarioak. Emalea: Leire Lugarizaristi. Arratsaldeko 4etan Famili eta Gizarte Hezkuntzarako lokalean.

31 OSTEGUNA

• **ZINEA**
 "El profesor chiflado" 7etan eta 9.30etan.

• **ZINE KLUBA**

"Eremu urriko hizkuntzen zinemaldiko filme eta laburmetraia euskarazko azpitoluekin" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Sarrera: 400 pta eta gazte txartelarekin 350 pta.



ESKOLA ARTEKO I. PERRETXIKO LEHIAKETA

Urriaren 27an San Viator ikastolak antolatuta perretxiku lehiaketa eta erakusketa izango da Sebero Altube plazan goizeko 11etan hasita.

EGA IKASTAROAK AEKn

EGA ikastaroa arratsaldeko 3etatik 6etara **AEKn**. **Ordutegia ez da zehatza. Izena emateko deitu 77 03 69 zenbakira azaroaren bata baino lehen.**

GERONTOLOGIA IKASTAROA

Azaroaren 18tik 28ra, zaintzaindariak: familiareta eta profesionalak ikastaroa arratsaldeko 5etatik 7.30etara. ICTEko Heziketa gelan, Loramendi 4. Izenematea ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Informazio gehiagorako deitu 79 02 11 edo 77 05 00 zenbakietara.



URONDO
 elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
 Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Jarraik deitutako kontzentrazioa

“Gazte indarraz presoak Euskal Herrira” lemapean, joan den asteartean kontzentrazioak egin ziren herriko hainbat ikastetxetan. Eskola Politeknikoan, San Frantzisko Xabier ikastolan, Institutuan eta Almenen egin ziren hamar minutuko kontzentrazioak. Jarraik deitutako kontzentrazioak asteartero egingo dira.

Eusko Ikaskuntza Arrasaten

Teknologiari buruzko topaketak egiten ari da Eusko Ikaskuntza hainbat tokitan, eta asteartean Eskola Politeknikora hurbildu ziren. Balantza teknologikoa nola oreka daiteke? galdera gaitzat hartuta, hainbat adituk, enpresarik eta ekonomistek euren iritzia eman zuten. Topaketan esan zenez, Euskal Herriak zaila du atzerriko herri garatuengan duen dependentziatik irtetzea.

LABekoen itxialdia

Eskualdeko 75 lagunek



Akeiko langileen protesta ekintzak

Astlehenean Epeleko zabortegira hurbildu ziren AKEIko langileak, eta ez zioten aurrera egiten utzi zaborra Epelen utzi behar zuen kamioi bati. Goizaldera arte egon ziren langileak toki horretan, eta Ertzaintzaren patrulla bat ere hurbildu zen Epelera. ELA sindikatuaren arabera, auzi honetan Mankomunitateak eta Diputazioak badute erantzunkizunik eta beraz, guztien artean irtenbide bat eman beharko diete langileei.

Bestalde, langileak salaketa jarri zuten Lan Inspekzioan eta gutuna bidali zioten Diputazioko Ingurugiro Zuzendariari, azken horrek Epelen zaborrak uztea debeka dezan.

parte hartu zuten LAB sindikatuak joan den astebukaeran antolatutako itxialdian. Arrasaten, 22 lagun batu ziren Udaletxeko brigadaren lokalean. Partehartzaileen kopurua

kontuan izanik, LABeko arduradunek itxialdiaren inguruko balorazio ona egin dute.

Ekintzari bukaera emateko domeka eguerdian manifestazioa egin zen, eta

LABekoen esanetan 300 lagunek parte hartu zuten. Itxialdia burutu zen tokitik atera zen manifestazioa, eta Ertzaindegi parera helduan bat egin zuten manifestariak eta base aurrean itxaroten zeuden ertzainek. Ertzainen esanetan, manifestazioa identifikatza eta karril bat bakarrik har zezatela eskatzera irten ziren. Manifestariak karril batera eta espalora pasatu eta manifestazioak aurrera egin zuten.

JAIOTZAK

- Maialen Lezeta Iturbe. Urriaren 10ean.
- Ander Garcia Olalde. 14an.
- Naiara Duran Ramirez. 11n.
- Naiara Armendia Zeruel. 14an.
- Iruke Altube Balanzategi. 17an.

EZKONTZAK

- Jose Luis Borbolla Jimenez eta Nerea Quevedo Duran. Urriaren 12an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Matilde Osinaga Uribe. Urriaren 14n. 75 urte.
- Josefa Amelia Raposo Tinto. 14an. 82 urte.
- Eufemia Garcia Lorenzo. 15ean. 90 urte.
- Jose Esquero Murillo. 17an. 51 urte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Pilar Ansoategi*

Okerreko bidea hartzen denean...

Azken aldian, komunikabideek Estatu Batuetako hainbat herritan haurrei egindako hainbat "sexu-eraso"ren berri eman digute: 6 urteko mutiko batek musu bat eman diola neskatala bati eta abar. Horregatik, haurrok isolatu edo aislatu eta eskolatik bota egin dituzte aldi baterako, disziplina-batzordeek, irakasleek eta abarrek onartu egin dutelarik.

Harridura eta haserrea sortu digute gertakari horiei eman zaien tratamenduak.

Gure ustez, eskolek eza-gupenak emateaz gain, bizi izaten, elkarbizitzen eta elkar errespetatzen ere erakutsi behar dute. Hezitzaileen lana zaila dela pentsatzen dugu, baina baita polita ere, gustatuz gero.

Emozioen hezkuntza: emozioak askatzea, transmititzen eta jasotzen jakitea eta abar oso garrantzitsuak dira

pertsona baten afektuzko bizitzarako, eta hori bizitzan ere ikasten da eta norbaitek erakutsi egin beharko luke.

Plazerrean hezi: ahaztuta eta baztertuta dagoen beste eginkizun bat da. Behar bada, ez dakigulako nola irakatsi, aintzakotzat hartzen ez dugulako edo batek daki zergatik.

Gure sexualitatea, sormena eta afektuzko bizitza garatzeko honako hauek beharrezkoak direla iruditzen zaigu: plazerra sortzen eta gozaten jakitea, lasaitzen

.....

"Plazerrean hezi: ahaztuta eta baztertuta dagoen beste eginkizun bat da"

ikastea, musika, paisaia, pelikula, ipuin eta abarren edertasunaz gozatzea, sentsazioak eta zentzumenak estimulatzea eta abar.

Gure iritiz, oso ona eta interesgarria izango litzateke gai hauek eskolan lantzea, bizitza betetasun osoz eta komunikazio eta empatia handiagoz bizitzeko, bizitzaz gehiago gozatzeko eta geure ingurukoei ere gozarazteko.

Jakina, pertsonak errespetatzen ere ume-umetatik erakutsi behar da. Errespetuak esandako gai horiek beste garrantzia du; izan ere, oso garrantzitsua da zoriontsu izateko.

Eskolan gai edo asignatura horiek ematea errebin-dikatu nahi dugu, baita haur horiekiko elkartasuna erakutsi ere.

Edozein ikaste-prozesutan etapak eta eskakizun eta helburua ezberdinak egon behar direla uste dugu, baina Estatu Batuetan gai horiei ematen ari zaizkien irtenbideak ez zaizkigu inolaz ere egokiak iruditzen; izan ere, zigorrak jarrita eta eskolatik botata emozioei trabak jartzea eta umeak traumatizatzea baino ez da lortuko. Horretaz gain, legitimatu egiten da hezkuntzan edo eskolan metodo errepresiboak erabiltzea eta horrek arazoen sustraietara jo beharrean, azaleko konponbideak ematea dakar.

* EMAKUMEEN
ASANBLADA

USTEAK USTE

PERTSONAK

Aspalditik genekien AKEI ixteko zegoela, horrela iragarri ziguten eta Mankomunitateko eta Aldundiko agintariek. Guri kontatu moduan kontatu genien guk irakurleei, abenduan itxiko zela. Hori jakin eta komunikabide gehienotan hasi gintzaion gaiari tiraka, orduetik aurrera zer gertatuko da zaborrarenkin? nora eramango dute? Horiek ziren gure, kazetarion, ustez erantzun beharreko galderak. Lapatx, Sasieta, beste irtenbideren bat... izan dira gure ardura. Azkenera arte inori ez zaigu bururatu AKEIko langileekin zer gertatuko zen galdetzea.

Horrelakoak gara komunikabideak. Egitasmoei, proiektuei, siglei, akordioei, etabarri garrantzia izugarria ematen diegu. Guretzat horiek izaten dira notizia, eta ez gara konturatzen benetan inportanteak pertsonak direla. Herri komunikabideak informazioaren gurpilean goaz, ez gara horretan desberdinak... baina izan gaitzke eta, hurbildutasunagatik besterik ez bada, ahalegin guztiak egin beharko ditugu.

BEÑARDO KORTABARRIA

I'NSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**EGIN ZAITEZ AUTOESKOLA
IRAKASLE**


Hilero 200.000 pezeta
inguruko soldata

**INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37**

Txernobil elkarteak Deba Garaira 20 ume ekarri nahi lituzke 1997an

Txernobil elkartearen aurkezpena egin zen asteazken arratsaldean Arrasateko udal pleno aretoan, eta hogeitau lagunetik gora bildu zen bertan. Aurkezpenean Jesus Mari Villar arrasatearrak, Carmen Millan eta Araceli Prieto bilbotarrak, Isabel Okulik ukraniarrak eta erradizioetan espezialista den sendagile batek hartu zuten parte, Arantxa Bilbaok. Honelako ekintzetan hogeitau laguneko kopurura iristea gutxi ez bada ere, Jesus Mari Villar arrasatearra apur bat etsita zegoen berak jende gehiago espero zuelako.

Txernobil elkarteak iaz sortutako erakunde ez gubernamental (ONG) bat dela aipatu zen aurkezpenean, apolitikoa eta humanitarioa. Elkar-te honen helburua bakarra: edozein hondamendiren ondorioz kaltetuta suerta daitezke-



en umeei laguntza eskaintzea, oporraldietan jasoz behintzat egun batzuetan modu onean egon daitezen.

Elkar-tea, asteazkenera arte, 122 bazkidek osatzen

du eta dirua udaletxe desberdinen laguntzari esker, bazkideek ordaintzen duten kuotatik, eta antolatzen diren ekintzetatik lortzen duela aipatu zen aurkezpenean. Zentzu

horretan aipagarria da posible litzatekeela abenduan Goikobalu eta Arrasate Musikalen artean Txernobil elkartearen aldeko ekitaldiren bat burutzea. Aurkezpenari bukaera emateko, bazkide egiteko aukera eman zitzaizen Udaletxeko pleno aretoan bildutakoiei.

Erakunde bezala iaz eratu zen Txernobil elkarteak, eta lehen urtea izanik Txernobilgo erradiazio ihesaren ondorioz kaltetutako hainbat ume ekarri zituen Euskal Herrira opor garaian. Deba Garaira bakarrik bi etorri zirenez, bata Oñatira eta bestea Arrasatera, asteazkeneko aurkezpena kontzientziazte lanerako lehen urrats bezala har daiteke.

Shasha: ONG berri honen lehen bisitaria Arrasaten

Hamahiru urteko neskatila ukraniarra izan genuen Arrasatera Txernobil elkartearen bidez etorritako lehen haurra. Berrogei egun inguru egin zituen Jesus Mari Villarren familiarekin. Opor ahaztezinak izan ei ziren Shasharentzat, orain gutxi Villartarrek jaso duten gutun baten arabera "horra itzultzeko ametsari esker bizi naiz" moduko esaldiak irakur daitezke eta.

Antzerako esperientzia bizi zuten iaz Euskal Herriko beste 140 familik.



beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Lora
bar

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99



Larrea plazan edukiko dute egoitza berria Uribarriko jubilatuek.

Onartu da Uribarriko jubilatuen egoitza egitea

Uribarri jubilatutako 700 bazkideak pozik daude. EAJrekin, PSE-EErekin eta EArekin izandako bilerek emaitza ona eman dute, eta era horretan, datorren urterako egoitza berria edukiko dute jubilatuek.

Larrea plazan Udalak dituen lokaletan egokituko da Uribarriko jubilatuetako egoitza, eta lokalak 340 m²ko azalera izango du. Urtea amaitzeko geratzen diren bi hilabeteetan proiektu urbanistikoa egitea erabaki da, eta proiektua aurrera eramateko dirulaguntza datorren urteko aurrekontuetatik emango litzateke.

Horrek ez du esan nahi hirukoak zentro zibikoa egiteko asmoa alde batera utzi denik, baina hasteko jubilatutako etxe berria egitea onartu du.

Jubilatu etxeetako ordezkariak azaldu dutenez, euren oso garrantzitsua izan da egoitza berria izango dutela jakitea, urteetan ibili dira egoitza berria eskatzen eta.

Hirukoak 96ko aurrekontuetan egoitza berritzeko dirurik ez ematea erabaki zuten, jubilatutako presioa egiten hasi zirenean. Lehenengo juntak dimisioa aurkeztu zuen, eta ondoren sinadurak biltzen hasi ziren.

Indioilarrendako kaiola

Indioilarrendako kaiola berriro eraikitzeko 255.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki du Udalak. Urriaren 12an erre zuten kaiola, eta Udaletxeko teknikariak ziur daude kaiola gureta erre zutela.

Traba arkitektonikoak

“Desarrollos Via Libre” izeneko enpresak aztertuko du herrian zein traba arkitektoniko dauden. Arrasateko traba arkitektonikoak gainditzen joateko hitzarmena sinatuta dauka Udalak Oncerekin eta Inersorekin, eta lehenengo traba horiei buruzko azterketa egingo da.

Geltoki berria

Aste honetan Garibain egin den geltoki berria erabiltzen hasi dira autobusak. Gasteizeruntz doazen edo Donostiatik datozen autobusak geltoki berrian geratuko dira aurrerantzean. San Andresekoei ibilbidea laburtu asmoz eraiki du Udalak geltoki berria.



DANKA

multimedia

Komunikazioan kontzeptu Berria



CD-ROM

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak



INTERNET

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena

Gure bezeroak:

DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...

DANKA multimedia INTERNET-ean dago (www.danka.es). Eta zure enpresa ?

Loramendi,4 - SAIOLAN Zentruan -
20.500 ARRASATE - Gipuzkoa -
Tels.: 943 - 770500 / 790211
Fax.: 943 - 795701
Web: www.danka.es
e - mail: danka@danka.es

Udal zergak eta tasak %4 garestitzea onartuko du plenoak

Gauregingo den udal plenoan 97rako udal zergak eta tasak onartuko dira. Bataz beste %4 igoko dira udal zergak eta tasak datorren urtean.

Udalaren gastuei aurre egiteko zergei dagokienez, hiri lurraren gaineko zerga %1,85 igoko da; iharduera ekonomikoen gaineko zerga (enpresa eta komertzioei jartzzen zaiena) %3,8; eta ibilgailuen gaineko zerga, autoena %3,6. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, ur eta zabor errezihoa orokorrean %12,8 garestituko da. Errezibo horren barruan aipagarria da ura %10 eta saneamendu tasa %25 igoko direla. Bestalde, kiroldegiko tasak orokorrean %5eko igoera izango du eta Iturbide Egoi-



PSE-EEko Rafaela Romerok zinegotzi karguari uko egingo dio.

tzakoak %4koa. Bukatzeko, San Kristobalگو nitxoak eta panteoiak %4 garestituko dira.

Udal tasen eta zergen igoera KPIaren arabera egiten da. Azken lau urteetan %25eko

igoera izan dute.

Rafi Romerok karguari uko egin


Donostian lana aurkitu eta bertan lan egiten dagoenez,

PSE-EEko Rafaela Romerok zinegotzi kargua utzi egingo du. Gaurko plenoan zinegotzi sozialistak kargua utziko duela jakinaraziko da, baina oraingoz ez da beste zinegotzirik izendatuko. Talde sozialistako zinegotziekin harremanetan jarrita, Rafi Romero ordezkatzeko duen pertsona zein izango den ez dutela oraindik erabaki adierazi dute.

Bestalde, Kontzeziñon etxeak egiten hasiko direla eta, inguru horiek urbanistikoki garatzeko Konpentsazio Batzordea eratu da. Horren arabera, promotoreek eta jabeek bultzatuko dute urbanizazioa. Gainera, plegu orokor bat proposatuko da Udalaren obrak zein irizpideekin adjudikatu finkatzeko.




Bezereekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

Irtenbide
aproposena!






(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE




ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabilioia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!



Institutuko frantsez seminarioak antolatuta Saintes herriko Lycée Bellevue institututik 11 lagun etorri ziren Arrasatera bertan astebete igarotzeko. Ikasleak 14 eta 17 urte artekoak ziren eta bertako hain-

bat ikasleen etxetan egon dira. Gaztelaniako klaseak hartzeaz gain, inguruak ezagutzeko bidaiak egin dituzte; Donostiara eta Errioxa aldera joan dira besteak beste. Arrasateko ikasleak apirilean egon ziren Frantzian.



Valentin Morenok, 39 urteko arrasatearrak, Euskal Herriko makailau txapelketa irabazi zuen domekan Basaurin. 62 lehiakideen artean, bizkai erara prestatutako bere makailau kazuelatxoa goxoena izan zen. Valentin SUDC elkartearen izenean joan zen eta txapelketako gipuzkoar bakarra izan zen. Txapelketan eta soziedadean bazkari goxoak prestatzen baditu ere, jakin izan dugu etxean ez dela sukaldera sartzen.



Erdiko kalean dagoen estankoko jabeak badute pozik egoteko arrazoirik. Ostiralean jakin zuten bertan sinatutako **Primitibak 99 milioiko saria** jaso zuela. Pertsona horrek sei zenbaki asmatu zituen eta itxura guztietan

arabera arrasatearra da. Lagun hori zalantza barik estankokoak baino askoz poziagoa egongo da. Mercedes Ruiz de Alegria eta Eli bere alabak lan egiten dute estankoan eta iaz ere milioi batzuk banatu zituzten ONCE delakoan.



Joseba Larrinagak, Martin Fizek eta Diego Garciak omenaldi berezia jaso zuten domekan Aretxabaletan. Atlantako olinpiadetan izan ziren korrikalariek euskal makila jaso zuten UDA kirol elkartearen eskutik.



Kajoi tabernako Antonio eta Txutxi Lezaman izan ziren joan zen astean Athletic taldearen entrenamendu bat ikusteko. Imanol Etxeberriak gonbidatuta joan eta primeran pasa zuten lehoien artean. Gainera

argazki mordoa ateratzeko aukera ez zuten alperrik galdu. Guk lortu dugun argazkian Antonio, Imanol Etxeberria atezain arrasatearra, eta Juanjo Valencia atezain titularra agertzen dira.

IZEN PROPIOAK

● **Marta Zubizarreta**, 22 urte, arrasatearra, ARKOk urtarrilean kalera-tuko duen 97ko gida egiten ari da Arantzazu Lagunilla-rekin batera. Martak enpresa zientziak ikasi zituen ETEON eta Sarri-kon.



Guatemala eta Bolibiako hainbat lagun bisitari izan genituen ostiralean. Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta etorri dira Euskal Herrira. Hego Amerikako lagun hauek heziketa munduan egiten dute lan eta bertako hizkuntza bultzatzeko ideiak jasotzera etorri dira. Arrasaten AED, Txatxilipurdi, Euskalan, Ekin eta ARKOn egon ziren.



AEK Eguna ospatu zen Iparraldeko Donapaleu herrian domekan. Arrasateko AEKko hainbat ikasle eta irakasle bertan izan ziren. Eguna borobila izan

zen eta eguraldiak ere lagundu zuen. Bertan errifa batzuk saldu ziren eta zenbaki sarituak honako hauek dira: Lehen saria 923a bigarrena 29.154a.

● *Iñaki Txueka*

“Akei ixteko lanean ari gara”

Azken egunotan zaborrei buruz asko hitzegin ari dela eta, Ingurugiro Saileko Diputatua- ren iritzia jakin nahi izan dugu. Telefonoz eginda- ko elkarrizketan, AKEI ixteko dagoen asmoa- ri buruz eta Deba Garaiko zaborrei emango zaien irtenbidearen gainean hitzegin digu Iñaki Txue- kak.

- Abenduaren 1ean AKEI itxi egingo da?

- Hori da asmoa. Greba dela eta gauzak korapilatu egin dira, baina abenduaren 1ean itxi ahal izateko lanean ari gara.

Ez dakigu data hori baino hamar egun lehenago edo beranduago itxiko den, baina ziurra da erraustegia itxi egin- go dela.

- Ondoren nora eramango dira Deba Garaiko zaborrak?

- Duda barik Sasietara. Deba Beheko zaborrak Lapaxera eramango dira eta Deba Garaikoak Sasietara. Gure asmoa, AKEIn trasferentzi zentro bat egitea da zaborrak bertan konpaktatzeko. Beraz, etxeetako zaborra jaso ondoren, AKEIn konpaktatu eta beste kamioi batzuetara pasatuko da. Kamioia Sasietako

tunel batetik sartzeko arazo- ak zeudenez, epe motzeko irtenbide modura zaborra era- mango duen kamioiaren kaxa diseinatzea pentsatu da.

AKEIn egingo den zen- troaren kostua Diputazioak ordainduko du, eta garraioa- ren gaiak Mankomunitatea arduratuko da. Gutxienez 2015. urtera arte eramango dira zaborrak Sasietara, eta gero beste irtenbide bat aur- kitu beharko da.

- Diputazioak zergatik era- baki du Gipuzkoa osorako erraustegia ez egitea: arrazoi ekonomikoengatik ala ekolo- gikoengatik?

- Arrazoi askorengatik bai- na kostu ekonomikoa handia izateak izan du eragin gehien. Galdera hala ere oso berezia da. Dauden arau zorrotzak betetzeko teknologi batzuk aplikatu behar dira, eta horrek inbertsio handiak egitea eska- tzen du. Erraustegia egingo ez denez, apostu batzuk egin ditu Diputazioak. Batetik ahale- gindu behar dugu ahalik eta zabor gutxien sortzen, eta ahal diren gauzei berriro ere era- bilpena ematea. Horretarako gizartea kontzientziatu behar da. Bigarrenik, birziklapena bultzatu beharra dago. Beira eta papera biltzeko esperien- tzia oso ondo doa, eta orain



plastikoak batzeko edu- kiontziak jarriko ditugu. Gai- nera, Legazpin plastikoa bir- ziklatzeko planta irekiko dugu aurten.

Hirugarrenik, zaborren aprobetxamendu organikoa ere aztertu behar dugu, bai- na horri baino garrantzia handiagoa emango diogu depuragailuetako lokatzaren tratamenduari.

Bukatzeke esango nuke arazoa gizarte osoarena dela, ez Diputazioarena edo uda- lena, eta beraz, guztiok inpli- katu behar dugu. Gizarteak jakin behar du zein arazo dagoen, eta horri irtenbidea ematea zenbat kostatzen den.

- Zer iruditzen zaizu AKEI- ko langileak egiten ari diren greba?


- Ikusten denez, neurri berezi batzuk hartu beharko

dira egoera berezi batzuen aurrean. Ulertzen dut AKEI- ko langileek duten kezka, bai- na hor enpresa indartsu bat dago, Dragados y Construc- ciones, eta horrelako enpre- sa batek ez luke arazorik edu- ki behar langile horiei beste lanpostu bat eskaintzeko. Uste dut greba hori ez dela egokia, eta langileek arazo batzuk sortzen dituztenez, horrelako egoera larri baten aurrean neurri larri batzuk hartu beha- rra dago. Ez dut onartzen gre- ban daudenek Epelen zabo- rrak uzten direla salatzea, azken finean eurek sortutako arazoa bada. Langileek irten- bidea eskatzen diote Diputa- zioari, baina uste dut Foru Aldundiak arazo honetan ez duela zerikusirik. Diputazio- ak planifikazio prozesu bat eramán du, eta Mankomuni- tateak zerbitzuak subkontra- tatua dauka. Langileek baze- kiten urte batzuk barru AKEI itxi egingo zena, eta bestalde enpresa baten barruan dau- denez, enpresari planteatu beharko diote arazoa.

● **“AKEIko langileen grebari dagokionez, ikusten denez neurri bereziak hartu beharko dira egoera berezi batzuen aurrean”**

Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Hirugarren ihardunaldia.
Elkarrizketa: Iñaki Bordes.
Emaitzak eta sailkapenak.*



Taldeen arteko aldeak handituz Zaldibarren

Oraindik goiz izan arren, hasi dira nabaritzen aurten zeresana eman dezaketen taldeak. Dagoeneko hirugarren ihardunaldia jokatu da eta sorpresak ez dira falta izan. Iaz benetan

bikain ibili ziren taldeak ez dabilta oso fin eta jendearen pronostikoetan sartzen ez ziren beste batzuk garaipenak lortu eta aurreko postuetan kokatu dira. Hala ere, ez da ahaztu behar lehen fasea seku-

la baino luzeagoa izango dela eta horrek aldaketak ekarriko ditu zalantza barik. Talde indartsuenek eskertuko dute luzapena; makalek berriz larri eta estu ibiliko dira azkenera arte.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorraketa mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	3	3	0	0	19	2	6
Abinagraus	3	3	0	0	22	3	6
Betrayer	3	3	0	0	22	4	6
Ojo Avisore	3	3	0	0	17	6	6
Arrogoi taberna	3	3	0	0	11	5	6
DKB	3	2	1	0	11	4	5
Baneuko	3	2	1	0	7	4	5
Aurrera Bolie	3	2	0	1	18	6	4
Pipwhis	3	2	0	1	15	8	4
Kriskibalda	3	2	0	1	6	4	4
Galartza kont.	3	2	0	1	10	7	4
Lorategi Potroak	3	1	1	1	9	9	3
Berango sukaldeak	3	1	0	2	10	12	2
Me la pela	3	1	0	2	7	10	2
Leya	3	1	0	2	6	13	2
Potosorri	3	0	1	2	5	11	1
Totem	3	0	0	3	8	17	0
Viboras	3	0	0	3	4	10	0
Alai gozokiak	3	0	0	3	3	20	0
Etxe Mobil	3	0	0	3	2	18	0
Kaxi Ganamos	3	0	0	3	2	21	0
Önaniereing	3	0	0	3	1	21	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Bedarreta taberna	3	3	0	0	23	5	6
Txeenex	3	3	0	0	14	6	6
MSM Ing. Integral	3	3	0	0	14	7	6
Orlando Piratas	3	3	0	0	21	13	6
Sokoakoak	3	2	0	1	22	6	4
AC Surkos	3	2	0	1	27	9	4
Sortu Informatika	3	2	0	1	14	8	4
Lautherbrunnen	3	2	0	1	10	10	4
Danok Lagun	3	2	0	1	8	9	4
Adelaida	3	2	0	1	10	14	4
Nuevo taberna	3	1	1	1	13	10	3
Koka Juniors	3	1	1	1	10	9	3
KK Jaurilarizari	3	1	1	1	7	7	3
Hirei	3	1	0	2	14	16	2
Tronkoteak	3	1	0	2	9	12	2
Anbotoste KT	3	1	0	2	7	11	2
Los Dimy	3	1	0	2	9	20	2
Rotor de Bolbogrado	3	0	1	2	2	15	1
Borrock'n'roll	3	0	0	3	7	16	0
Iluna taberna	3	0	0	3	6	15	0
Cartonajes Igamo	3	0	0	3	5	14	0
Bukanak	3	0	0	3	6	26	0

Hurrengo partiduak

URRIAK 26, LARUNBATA

Zaldibar

08.50 Iluna bar - Borrock'n'roll
10.00 Jotakabau - Gualtrapas
11.00 Ke Oxtias - Hapoel Jamon
12.00 Lorategi Potroak - Aurrera Bolie
13.00 Abinagraus - Totem
14.00 Okoretegi - Elisabeth
15.00 Betrayer - Viboras
16.00 Ganbelas - Diego Antonio
17.00 DKB - Pipwhis
18.00 Los Innombrables - Perrahotsa
19.00 Orlando Pirates - Anbotoste KT

Iturripe A

11.00 Insert Coin - La Mosca Gao
12.00 Sokoakoak - Hirei
13.00 Motz - Sobredosis de Txeira
14.00 Cartonajes Igamo - Nuevo taberna
15.00 Alai gozokiak - Me la pela
16.00 Lautherbrunnen - Los Dimy
17.00 Naranja Mecanica - Pepelus
18.00 Danok Lagun - Koka Juniors

Iturripe B

13.00 Ojo Avisore - Etxemobil
14.00 Potosorri - Önaniereing
15.00 Leya - Kaxi Ganamos
16.00 Cerve Leintz - Los Heredia

17.00 Irati STS - Baneuko
18.00 ZPPPW7 - Kinder Konpresa

Urriak 27, Igandea

Zaldibar

8.50 MSM Ingeni Integral - Bukanak
10.00 Kriskibalda - Berango Sukaldeak
11.00 Bedarreta Taberna - Sortu Informatika
12.00 Argi Ibili - Fosforos
13.00 Adelaida - Txeenex

Iturripe A

11.00 AC Surkos - KK Jaurilarizari
12.00 Arrogoi Taberna - Galartza Konte
13.00 Rotor de Bolbogrado - Tronkoteak

Labur

MULTZOZ MULTZO SAILKAPENA

A multzoan bost talde daude sailkape-neko buruan 6 puntu-rekin: Irati STS, Abinagraus, Betrayer, Ojo Avisore eta Arrogoi taberna. B multzoan bi bakarrik: Insert Coin eta Cerveceria Leintz. Azken multzoan berriz beste lau 6 punturekin, hau da neurketa guztiak irabazita: Bedarreta taberna, Txeenex, MSM Ingenieria Integral eta Orlando Piratas.

Emaitzak

HIRUGARREN IHARDUNALDIA

A taldea

Aurrera Bolie 11 Alai gozokiak 0
Baneuko 1 Lorategi Potroak 1
Berango Sukaldeak 1 Irati STS 5
Galartza kontenedoreak 4 Kriskibalda 1
Etxe Mobil 2 Arrogoi taberna 4
Viboras 2 Ojo Avisore 4
Totem 4 Betrayer 8
Kaxi Ganamos 1 Avinagraus 7
Önaniereing 1 Leya 4
Pipwhis 6 Potosorri 2
Me la pela 1 DKB 4

B taldea

Kinder Konpresa 3 Los Innombrables 5
Sobredosis de Txeira 4 ZPPPW 3
La mosca gao 3 Motz 3
Diego Antonio 1 Insert Coin 6

Hapoel Jamon 4 Ganbelas 6
Fosforos 4 Ke Oxtias!! 1
Elisabeth 0 Argi Ibili 6
Gualtrapas IK 0 Okoretegi 4
Los Heredia 0 Jotakabau 2
Pepelus 0 Cerveceria Leniz 1
Perrahotsa 3 Naranja Mecanica 4

D taldea

Bar Nuevo 3 MSM Ingenieria Integral 5
Koka Juniors 3 Cartonajes Igamo 1
Sortu Informatika 6 Danok Lagun 2
Anbotoste KT 3 Bedarreta taberna 6
Borrock'n'roll 4 Orlando Pirates 8
Los Dimy 3 Iluna taberna 6
Hirei 2 Lautherbrunnen 4
Tronkoteak 1 Sokoakoak 8
Adelaida 3 Rotor de Bolbogrado 0
KK Jaurilarizari 2 Txeenex 3
Bukanak 4 AC Surkos 14

Protagonistak

Iñaki Bordes (Ikuslea)

— Zaldibarrera sarri etortzen zara?


— Noizbehinka eta partidu interesgarriak daudenean inguratzen naiz, bestela ez.

— Ezagutzen dituzu txapelketako taldeak?

— Egia esateko ez dituzt ezagutzen. Jokalarien artean badut ezagunik baina askotan ez dakit zein taldetan jokatzen duten.

— Nola dakizu partidu interesgarriak jokatu behar direla?

— Arrasaten Pressen irakurtzen dut edo bestela Unai semeak esaten dit. Gehiengoz semea eta biok etortzen gara.



— Espero duzu urte batzuk barru semea Zaldibarren ikustea?

— Zergatik ez!, Une honetan ere gustora jokatu luke baina gazteegia da. Orain Almeneko futbol taldean jokatzen du eta behar-

bada handiago egiten denean Zaldibarko jokalarari bihur daiteke.

— Zer iruditzen zaizu Zaldibar moduko ekimen bat?

— Ideia ona da, jende gazteak zerbait behar du mugitzeko eta herri mailako ekintza izanda askoz hobeto. Bestalde sortzen den giroa aipatu behar. Txapelketa hasieran ez da jende asko izaten baina bigarren fasean aurrera izugarriko giroa egoten da harmailetan.

— Iskanbilak ere izaten dira jokalarien artean?

— Hori neurri batean normala da. Jendea urduri dago eta ulertzekoa da moskeo batzuk izatea. Hala ere, une horiek gutxienak izaten dira, guztion onerako.

Labur

■ NEURKETA ONENAK

Laugarren ihardunaldian neurketa interesgarri ugari jokatuko da Zaldibar eta Iturripen. Zapatuan esatebaterako Lorategi Potroak eta Aurrera Bolie izango dira lehian, eguerdiko 12etan Zaldibarren. Iturripen arratsaldeko 4etan Cervecera Leintz eta Los Heredia. Igarandeko ihardunaldia-ri gainbegirada emanez. 11etan Zaldibarren Bedarreta Taberna eta Berango Sukaldeak nor baino nor. 12etan beharbada ihardunaldiko partidu onena: Argi Ibili eta Fosforos, duela bi urteko finaleko protagonistak.

■ GOLEADAK

Bi goleada aipatu behar beste guztien artean. Aurrera Boliek 11 eta 0 irabazi zion Alai Gozokiak taldeari. Bukanakek berriz, 4 eta 14 galdu zuen AC Surcosen kontra. Horrez gain, Los Heredia berriz galdu egin du Jotakabau taldearekin 0 eta 2. Totem ere burua ezin altxatu dabil. Betrayerrek 8 gol sartu zizkion iaz hain ondo ibili zen Totemi.

Irudia



deia benetan ona Bedarreta taberna taldeak erakutsitakoa. Jendeak ondo jakin dezan nork sartu duen gola, edo penaltia egin edo aurkariari ostikoa eman, kamisetan euren izenak agertzen dira. Hemendik aurrera Seve, Manolo, Polo, Aure, Vicen, Antonio... erne ibili zuen izenak gure zerrenda beltzean jarri ditugu eta.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioko egindako leihoak, atea, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**




Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tfnoa: 79 81 82



Leixargarateko txabolaren 25 urteak ospatzeko hamaiketako berezia egongo da bertan domekan.

Leixargarate, aterpea mendian

Alabitta eta Degurixa artean, pagoz eta haritzez inguratuta, paisaia zoragarrian kokatzen da Leixargarateko txabola. Lehen harria jarri zenetik gaurdaino Besaide eta UDA mendi sailak erai-

kitako txabolak zilarrezko eztaiak bete ditu. 25 urte luze hauetan jende ugari eta era guztietako anekdotak bizi izan dira txabolako lau hormen artean. Baina mendizaleentzat txabola simple bat bai-

no zerbait gehiago da. 1971ko irailaren 5ean inaugurazioa egin zen arte, makina bat arazori egin behar izan zioten aurre borondate osoz lanean ibili ziren lagunek.

Itxaro Zubillaga

HASIERAKO URRATSAK

Frankismoan debekatuta zegoen lagun talde bat elkartu eta edozein ekimen aurrera ateratzea. Kalean biltzerik ez zegoenez, txabolak leku apropos moduan ikusten ziren herritarrak elkartu eta euren arteko harremanak sendotzeko.

Leixargarateko txabola eraiki baino lehen, Besaidek

Anboto magalean beste txabola bat jaso zuen. Ez zen inguru horretako bakarra izan. Herriko lagun talde batek Pake Lekuko aterpea jaso zuen. Lagun batzuren txabola izan arren, aterpetxeen araudia bete behar zuen, hau da, leku irekia izan norbaitek beharra izanez gero bertan gelditu ahal izateko. Besaideren eta lagun talde horren interesa ikusita txabola berri bat egin zen partikularretik 200 metrora.

Horrela bada, lehen txabolak 1964ko maiatzean zabaldu zituen ateak. Inaugurazioa estatuko mendi akanpadarekin bat etorri eta bertan ospatu zen jaia.

Urte horietan Albaro Arregik zuzentzen zuen Besaide. Albarok ondo gogoratzen du Anbotopeko txabolaren arrakasta eta era berean beste txabola bat eraikitzeko ideia. "Txabola horren arrakasta ikusita Besaideko zuzendaritza taldeak lanean jarraitu zuen Elge-

ako mendi lerroaren inguruan beste aterpetxe bat jasotzeko". Leixargarateko ideia gauzatu arte beste aukera eta proiektu batzuk aztertu ziren. Julio Markaidek egindako proiektua bukatuta lehen aldaketa egin zitzaion. Izan ere, UDA kirol elkarteko mendi sailak proiektuan parte hartzeko asmoa azaldu zuen. Atxabaltarrekin akordioa itxita eta Bolibarko Jauroso baserriko Iñurrategi anaien jarrera ona-

ri esker 1970ko maiatzean hasi ziren obrak. Inñurategi anaiak txabola egin behar zen lur zatiaren jabeak ziren. Txabolarako ura Degurixako bidean dagoen iturritik lortu zuten. Eraikitze lanak hala ere dexente luzatu ziren, baina 1971ko udan dena gertu zegoen inaugurazioa egiteko. 1971ko irailaren 5ean inauguratu zen txabola. "Aretxabaleta, Arrasate eta inguruko jende askok hartu zuen parte ekintzan. Pako Iriondo orduko Kostaldeko Mendi Federazioko delegatua ere bertan izan zen". Egun ahaztezina Besaide eta UDA elkartekoentzat.

**INAUGURATU ONDO-
RENGO URTEAK**

Hurrengo urteetan Juan Jose Saezek hartu zuen Besaideko lehendakaritza. Leixargarateko txabolarentzat trantsizio eta sendotze urteak izan ziren. Behin txabola inauguratuta egokitzapen lanak egin behar mendizaleek erabili ahalizateko. Juan Josek gogoratzen duen bezala garai hartan Besaidek Garibai kalean duen lokala erosi zuen, ondorioz txabolarentzat asmo onak baina diru gutxi. Trantsizio urte haietan besteak beste UDA elkartekoen laguntzarekin lehen lizarrak landatu zituzten txabola inguruan. Lizarrak eramatea jakina, ez zen lan makala izan, materiala igotzeko garraiorik ez eta tartean makina bat oztupo. "Materiala todoterrenoan eramaten genuen eta langileok Bergaresan joaten ginen Gatzagara eta handik oinez txabolarara. Gainera bidean zerbait oker edo apurtuta ikusiz gero, hantxe gelditzen ginen konpondu arte".

Txabolaren bigarren epe-



Txabolaren inaugurazioan inguruko jende ugari hurbildu eta jai giroa izan zen nagusi Leixargaraten.

an batez ere hobekuntza lanak egin ziren: ura ekarri, txabola babestu, inguruak txukundu. Arazoak ere izan ziren baina dagoeneko ahaztuta ei dituzte.

Jendeak bestalde ez du oraindik ahaztu estufak botatzten zuen kea edo sukaldeko egurrak ateratzen zuena, haizearekin ez ei zegoen bertan egoterik. Sukalderako butano bonbonak eramatea ere abentura hutsa izaten zen. "Land Rover edo horrelako kotxeren bat zuen norbait engantxatzen genuen, bestela bizkarrean ezinezkoa zen bonbona eramatea. Gainera gasa berehala bukatzen zenez, beti arazoak izaten genituen".

Juan Joseren garaia bukatzerakoan Aitor Zabalak, Fernando Reyesek eta Aitor Zubiagak hartu zuten txabolaren ardura. 1991tik 96ra hainbat hobekuntza aipagarri egin dira Leixargaraten.

1991an kanpoaldean zegoen tejabana kendu eta



Herritarren laguntza handia jaso zen txabola eraikitzeko.

egurtoki berria egin zen. Hurrengo urtean tximinia eta su bajua berriztu. Ondoren txabolaren barrualdea txukuntzeko literak konpondu eta 12 laguntzat tokia egokitu. Duela hiru urte Danok Bat elkartearen laguntzari esker mahaiak, jarlekuak, ontziteria... berriak jarri ziren. Horrez gain, komunak konpondu dituzte, sukaldean azulejoak jarri, ekonomika eraman eta tximenea berria jarri. Aurten berriz, beste hornikuntza lan

batzuk burutu dira; egurra bildu, argi eta sukalderako butano bonbonak berriztu, txabola margotu.

Horrenbeste mendizaleen topaleku eta aterpe izan den Leixargarateko txabola eraiki zenetik gaurdaino era berezian izan da zaindua. Besaidekoek aurrerantzean ere txabolak behar duen laguntza ematen jarraituko dute, beraientzat lau horma baino zerbait garrantzitsuagoa da eta.

Leixargarateko txabolaren zilarrezko eztaiak ospatzeko ekintza berezia antolatu dute Besaidekoek domekarako. Goizeko 11etan hamaiketakoa izango da txabolan eta herritar guztiak zaudete gonbidatuta.

Asteburua Leixargarateko txabolan

Besaidek Leixargaraten duen txabolara joan ahal izateko aurrez erreserba egin genuen orain hilabeteko martizen batean, arratsaldeko 7.30ak eta 8.30ak artean.

Apur bat argi ibili beharra dago, txabolarako eskari asko egoten da eta ez da erraza izaten norberak aukeraturako egunetan libre egotea. Erreserba astean Besaide elkartetik pasatzen gara giltza jasotzeko, martizenetan.

Arratsaldeko 6ak dira, dena prest dago, zita Arbolapetan da eta bakoitzak bere ardura izan du (janaria, edaria, materiala).

Autoan sartu eta Gazteizko bidean jarri gara. Arlaban berritik igo eta Dorletako Amabirjinaren parean kamineru etxearen ezkerretara hartzen dugu. Kilometro inguru geratzen zaigu eta autoa zelai batean uzten dugu, bi baserriren artean.

Motxila bizkarrean hartu eta oinez hasten gara. Bideak ez du zailtasunik, pago eta haritzez inguratutako aldapa gutxiko pista bat da. Bidea polita da eta sasoi honetan basoa zoragarri dago, hostoen kolore gorriak, horiak, marroiak, okreak; odolgi bigunaren berdetasun freskoa.

Ordu erdiz ibili ondoren gora heltzen gara. Bertan dagoen burdinezko dorre batek orain denbora gutxi, bista mila aldiz ederragoa zela gogoratzen digu. Lautadan pista jarraitzen dugu eta Alabitta, Bolibar eta Degurixatik datozen bideak elkartzen diren tokian, eskumara. Etxean dagoeneko, 45 minututik ordubetera. 900 metro.

Txabola zabaldu eta dena garbi eta txukun dagoela ikusten dugu. Hamarreko bat aurreko erabiltzaileentzat.

Motxilak bizkarretik kendu, traste denak bere lekuan jarri eta patxadaz jartzen gara.

Bost lagun gara guztira, broma eta txiste artean afaria prestatzen hasten gara. Afaldu eta nola ez! fregaua kartetan jokatu behar. Beheko suak berotasuna eta gure begiradak galtzeko puntu bat ematen

digu. Kontu kontari gabilta eta bide batez hurrengo eguneko plana prestatzen dugu. Oheratu eta argia itzaltzen dugu.

Pun! Pun! zer gertatzen da? Zer dago kanpoan? Jaiki eta kanpora noa. Konpainia dugu, bi eskopetero bereak eta bat egiten. Beraiekin barriketaldi gogor samarra dut baina arazoa ez doa urrutirago. Ezusteko iratzargailuak esnatuta martxan jartzen gara. Gosari on bat eta aurrera. Alabittarantz abiatzen gara, Mugarriluze eta bailara txikia gure eskumara utziz. Harri artean dagoen bidezidor bat zeharkatu eta gero, Degurixako bidea hartuko dugu pagoz inguratuta dagoen basotik. Degurixan hamaiketakoa, zigarrotxo bat eta bideari ekin diogu Kurtzeberrirantz Kargalekutik pasa ondoren.

Gurutzean zerbait jan eta paisaia ikusgarriari begiratzen diogu. Anboto, Udalatx, Aizgorri, Urbasa, Gorbea, Ugastei, Urkulu begiradapean eta beste hainbat mendi, bailara, herri, auzo....

Elgeako mendilerroan haizerrotak jartzen dituztenean, autopista egiten denean, Y euskaldunak zeharkatzen duenean honek guztiak izango duen itxuran pentsatzen dugu. Gure aurpegiak tristetu egiten dira eta ordaindu beharreko prezioa gehiegizkoa ez ote den pentsatzen dugu.

Txabolara itzultzeko ordua, bidea

samur egiten da zelaietan zehar ardi eta behorren konpainian.

Eguzkiak argitzen du baina haizeak freskatu, bueltako bidean gozatzen dugu. Afaria prestatzen dugun bitartean eguneko gorabeheretz hitzegiten dugu. Pakok gogorazten digu bihar kuadrilla osoa datorrela eta babak beratzen jarri behar direla.

Gosaldu ondoren lanean hasten gara. Batzuk haizeak eta edurrak botatako egurra biltzen dugu, gainontzekoak bazkaria prestatzen hasi dira.

Lagunak badatoz. Lapikoen usainak bazkaria gertu dagoela adierazten digu. Guztira 12 lagun elkartu gara eta 4 mutiko kozkor. Bazkalostean eta pena handiz garbitze lanak hasten dira, fregatua, komunak garbitu etab. Zakar dena poltsetan sartzen dugu behin kalean edukiontzietan uzteko, goian ezin dugu hondarririk utzi beste egun batean datozenentzat. Irten baino lehen azken begirada.

Motxilak erdi hutsik daude eta bideak politagoa dirudi.

Ni neu arduratuko naiz giltza Besaiden uzteaz. Araudi orria ere beteko du, bertan zerbait falta edo apurtu den jarri behar da, eta behar dena ordainduko dut. Ea hurrengoan ere oraingoan moduko eguraldi ona daukagun.

AITOR ZABALA



1996-97 denboraldia

Arrasate rugby taldea aurten berriro lehen mailan

Arrasateko Rugby taldeak ilusio eta gogo handiz hasi du 96-97 denboraldia. Lehen partidurako Bera Bera taldea izan zuten aurrean eta Patxi Gorosabelen mutilak erraz nagusitu ziren. Zapatuan Bilboko Unibertsitatea taldearen kontra neurtu zituzten indarrak Garagartzan eta bi taldeen artean parekotasuna nagusi izan bazen ere, Arrasateko ordezkariak ezin izan zuten azken minututan neurketa aurrera atera. Datorren zapatuan arratsaldeko 4etan ihardunaldiko hirugarren erronka izango dute. Durango eta Arrasate izango dira aurrez aurre Durangoko zelaian. Gaurdaino

talde bizkaitarrak ez du neurketarik irabazi eta hori datu ona izan daiteke arrasatearrentzat.

Taldean bestalde hainbat aurpegi berri dago. Zunbeltz Arana, Iker Saizar, Arkaitz Iburguen eta Egoitz Unamuno aurten igo dira lehen mailara. Era berean Basilio Tamaio eta Gaizka Arriola berriak dira. Biek hemen ikasten dute eta Arrasateko taldearekin beteko dute aurtengo denboraldia.

Jokalari guztiekin fitxa teknikoa egin dugu. Guztira 31 lagunek osatzen dute taldea. Jokalari gazteak badira ere, badute euren esperientzia rugby munduan.




Patxi Gorosabel
37 urte
Entrenatzailea eta bigarren lerrokoa arrasatearra




Julen Betzuen
20 urte
pilierra
arrasatearra




Claudio Merchan
35 urte
pilierra
arrasatearra



Aimar Ormazabal
20 urte
pilierra
arrasatearra



Iker Saizar
18 urte
pilierra
arrasatearra



Zigor Eguren
20 urte
pilierra
arrasatearra



B. Agirreurreta
26 urte
orpokatzaile
arrasatearra



Gaizka Arriola
20 urte
orpokatzaile
zarauztarra




Iñigo Ansuategi
29 urte
bigarren lerrokoa
bergararra



Jon Lasanta
21 urte
bigarren lerroa
bergararra



Iñigo Olasolo
27 urte
bigarren lerroa
bergararra



Joseba Zabala
23 urte
hegal aurrelaria
arrasatearra




A. Agirreurreta
22 urte
hegal aurrelaria
arrasatearra



Ander Egues
23 urte
hegal aurrelaria
arrasatearra



Josu Ezkurdia
29 urte
hegal aurrelari
arrasatearra



Zunbeltz Arana
18 urte
erdilaria
arrasatearra



Raul Pablos
22 urte
erdilaria
arrasatearra




Egoitz Unanumo
18 urte
zabaltzaile
arrasatearra




I. Barrutiabengoa
19 urte
zentrala
arrasatearra



Arkaitz Ibarguen
18 urte
zentrala
arrasatearra



I. Agirreurreta
24 urte
zentrala eta
kapitaina
arrasatearra



Gaizka Biteri
20 urte
zentrala
arrasatearra



Dabid Jauregi
28 urte
zentrala
aramaioarra



Juan M^a Otxoa
28 urte
hegala
elgetarra



Aitor Balanzategi
24 urte
hegala
arrasatearra



G. Cruickshank
35 urte
hegala
oñatiarra



R. Balanzategi
25 urte
3. lerroko erdikoa
arrasatearra



Basilio Tamayo
26 urte
3. lerroko erdikoa
tolosarra



Joseba Maidagan
20 urte
back-a
arrasatearra



J.Manuel Servide
21 urte
back-a
arrasatearra



Migel Angel Arana
delegatua
arrasatearra.



Ibon Alzelaiaren mutilek liderraren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Eskubaloi taldeak Hondarribia liderra aurrean

Arrasate eskubaloi taldeak Hondarribia multzoko liderra izango du aurrean domekan eguerdiko 12.30etan Iturripen. Denboraldiko hirugarren partidua izango da eta ez nolana hokoa. Bi taldeek antzerako jokoa egiten dute, defentsa irekia eta azkartasuna da duten ezaugarri nagusia. Gainera elkar ondo ezagutzen dute eta hori batzutan abantaila izan daite-

keen moduan, beste batzutan arazo bihur daiteke. Hondarribia taldeak jokatu-tako bi neurketetatik Beti Onan kontra berdindu egin zuen eta Tres de Mayo taldeari erraz irabazi zion azken partiduan. Arrasatek Sant Esteven kontra gol bateko aldeaz irabazi zuen Iturripen eta La Rocaren kontra galdu. Ibon Alzelai entrentzaileak uste du irabazi daitekeela eta horregatik gogor

ibili dira entrenatzen aste honetan. Era berean lesionatu dexente dago taldean baina domekarako gehienak jokatzeko moduan izatea espero dute. Lehen territorialak ere etxean jokatuko du Elgoibar taldearen kontra domekangoizeko 10.45etan. Hauen helburua ere garai-pena lortzea izango da. Jubenilek berriz Elgoibarrera joan dira eta kadeteak Eibarrera Arrateren kontra jokatzeko.

Urbina Maltzagak derbia jokatuko du Iturripen

Urbina Maltzaga saskibaloi taldeak Iruñeko Alvecon Maristas taldearen kontra jokatuko du zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen. German Mongeren mutientzat neurketa garrantzitsua eta irabazi beharrekoa da. Arrasateko taldeak aurre-

denboraldi motza egin duenez, gauzak hobetu eta taldeari beste itxura bat emateko partidu hori jarri dute epe moduan. Beraz hemen-dik aurrera gehiago eskatu-ko zaio Arrasateko taldeari orain arte ez du eta partidurik irabazi. Dena dela, ihar-

dunaldiz ihardunaldi hobetuz ari da taldea eta jokalarien artean oreka gehiago nabari da. Hori dela eta, Moises Michael atzerritarra datorrenean, etortzen bada, jokalaria erabakiorra bihur daiteke batez ere barruko jokoa sendotzeko.

LABURRAK

Atletismoa

Azaroaren 10ean Behobia Donostia lasterketa burutuko da. Urtero moduan izena emateko aukera egongo da Loramendi kirol dendan eta horretarako azken eguna azaroaren 2a da. Prezioa 1.500 pta. Bestalde, Loramendin bertan zapatila pare bat erosiz gero, izenematea dohainekoa da.

Preferente Mailako Mondra

Preferente mailako Mondrak denboraldiko zortzigarren ihardunaldia jokatuko du domekan arratsaldeko 3.45etan. Anaitasuna eta Mondra izango dira lehian Txerloiko futbol zelaian. Azkoitiko taldea sailkapeneko 13. tokian dago 9 puntu-rekin. Gaurdaino bi neurketa irabazi, hiru berdindu eta bi galdu ditu. Mondrak 11 puntu ditu eta 10. tokian dago. Jesus Mari Barrutiabengoa-ren mutilek etxetik kanpo ez dute emaitza onik lortu. Hondarribian kontra husnako berdinketa lortu zuten, Beti Gazte taldearen aurrean 2 eta 0 galdu eta Lazkaoren kontra ere galdu 4 golegatik. Asteburuan beraz, itxura aldatu eta Atxabalpetik kanpo lehen garai-pena lortzeko aukera izan dezakete.

Mondrako emakumeak

Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak azken ihardunaldian lortutako garaipenari esker beste indar batekin egingo diote aurre domekako norgehiagokari. Arrasatek eta Ikesik elkarren kontra jokatuko dute Atxabalpen arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Mondrako emakumeek azken neurketetan era guztietako emaitzak lortu badi-tuzte ere, joko polita ari dira erakusten.

Ezusteko bat
medio, uste baino
aste bat beranduago
jasoko duzu
agindutako
ezustekoa zure
etxean.

Maixa Lizarribar

“Gasteiz aldean jotzea gustatzen zait gehien”

Maixa eta Itziar trikitilari taldeko soinu-jolea dugu Arrasaten trikitixa eskolak ematen dituen altzotar hau. 25 urte ditu baina 13 zituela hasi zen musika ikasten. 17rekin Itziar ezagutu zuen eta orain agenda bete bete eginda plazaz plaza eta eskolaz eskola ibiltzen da trikitixa jotzen eta irakasten.

— Noiz hasi zinen trikitixa jotzen?

— 13 urterekin Villabonan, nahiz eta ni Altzokoa izan. 17 urterekin berriz, Itziar ezagutu nuen. Elkarrekin hartu genuen parte 1988ko Euskadiko Trikitixa Txapelketan eta hor hasi zen gure harremana.

— Noiz erabaki zenuten taldea sortzea?

— Hasieran pentsatu ere ez genuen egiten horrelako talde bat sortzera helduko ginenik. 1988an trikitixa txapelketa horretan parte hartu eta finalera heltzea lortu genuen. Emakume bikote bakarra ginen eta horrek, antza denez, atentzioa deitu zuen. Erromerietan jotzeko deitzen hasi ziren, eta horrela hasi ginen Itziar eta biok elkarrekin plazetan jotzen. Duela 3 urte berriz, Garbiñe Sagastibelza ezagutu genuen eta gurekin jotzen hasi zen. Bateria baten beharra ikusi genuen eta Maialen Gillon sartu zen. Horrela taldea sortu zen.

— Trikitixa jotzen ikasten hasi zinenetik gaur egunera asko aldatu da trikitixa?

— Egia esan, ikasteko ematen diren lehenengo pausoak berdinak dira. Nonbait



aldatu bada, plazan da. Lehen soinu-jole eta panderojole bikoteak baino ez zuen jotzen erromerietan; orain berriz, hori apenas ikusten da. Bikoteari baxujole edo bateriajole bat gehitu zaio. Errepertorioa ere nahiko aldatu da: lehen betik euskal kantak jotzen ziren, baita pasodobleak eta tangoak ere; orain berriz horiek ez dira hainbeste jotzen.

— Trikitixak indar asko hartu du azkenaldian, ez?

— Bai, azken urteotan asko indartu da. Lehen herri txikietakako erromerietan baino ez zen trikitixa egoten, zaila zen herri handietan jotzea, hauetara musika talde handiak baino ez ziren joaten eta. Gaur egun talde handiek bezain garrantzi handia daukate trikitixa taldek herri handietan.

“Arrasaten duela urte pare bat izan zuen trikitixak gorakada handia, ordu guztiak bete ziren. Aurten gauza bera gertatu da”

— Taldean edo bikoteka jotzen: Nola disfrutatzen duzu gehiago?

— Taldean jotzen ibiltzen naizenean oso gustora egoten naiz, baina Itziar eta biok erromerietan jotzen ibiltzen ginenean ere primeran pasatzen nuen. Gertatzen dena da horrenbeste urte erromeriaz erromeri ibili ondoren, aldatzeko gogoia izan genuela eta orduan taldea sortu zela. Orain taldean, berritasun bat delako, gustorago nabil.

— Zein plazatan jotzen duzue gustorago?

— Gasteizen. Trikitixa indar asko hartzen ari da inguru horretan. Gipuzkoan berriz, Tolosaldean jotzea gustatzen zaigu. Iparraldeko plazei dagokionez, jendeak dantzan ez duela egiten esan behar da, dena dela, geroz eta gehiago animatzen ari dira eta hori pozgarria da.

— Arrasaten trikitixa irakasten duzu. Geroz eta ikasle gehiago daude?

— Arrasaten duela urte pare bat izan zuen trikitixak gorakada handia, ordu guztiak bete ziren. Aurten gauza bera gertatu da. Gazte asko etorri da trikitixa jotzen ikasi nahi duela esanez baina ezin izan ditugu eskolan hartu, ez dago ez lekurik eta ez ordurik.

— Hurrengo diskoa, noizko?

— Datorren udaberrian hasiko gara grabatzen eta udarako kalean egotea espero dugu, maiatza edo ekain aldera.

LABURRAK

“Udazken Kulturala” Eskoriatzan

Bihar Eskoriatzako Udalak antolatu duen Udazken Kulturala egitarauari emango zaio hasiera Xagu apia euskarazko antzerkiarekin. Frontoian izango da ikuskizuna gaueko 10.30etan. Sarrerak 800 ptatan salduko dira, gazte txartelarekin berriz, 500ean. Udazken Kulturala egitarauari abenduaren lehen emango zaio amaiera. Tartean hainbat ekintza izango da: erakusketa, kantaldia, haurrendako jaialdia, marrazki lehiaketak, euskal dantzak eta kontzertua adibidez.

Brass musika masterra

“Mondragon Brass” musika taldeak antolatuta, Phil Doddridge maisuak Brass musikaren master eskola emango du zapatu arratsaldean Arrasate Musikaleko aretoan. Musikari hau Galesko Orkestra Nazional Gazteko tronboi bakarlaria izan da eta baita Erresuma Batuko Metal Bandakoa ere.

Goizeko 10etan tronboi eskolen aurkezpena egin eta kurtsoari hasiera emango zaio. Eskola hauek ordubatean amaitu eta ordubietan bazkaria izango dute partehartzaileek SUDC elkartearen eskutik. Arratsaldeko 4etan Kamara-Brass musika eskolei ekingo zaie. 7etan eskolak amaitu eta partehartze agiriak banatuko dira ikasleen artean. 7.30etan Iberian Brass taldearen tronboi laukotearen emanaldia izango da Arrasate Musikalen. Gaueko 10.30etan berriz, Aterpe tabernan eskainiko du kontzertua Iberian Brass taldeak.


Taun Taun-en Ubu Babel antzezlan Errege izan nahi ez zuen txontxongiloa

Gaur gaueko 10.30etan Taun Taun antzerki talde bergararrak bere azken lana eskeiniko du Amaia antzokian: "Ubu Babel". Taun Taun-ek joan den igandean estreinatu zuen Bergarako Zabalotegin Arrasaten gaur gauean eskeiniko den obra.

Taun Taun taldearen azken lan honetan, artista kataluniar batek zuzendu du taldea, Joan Baixas-ek. Taldeko aktoreen esanetan, kanpoko zuzendari bat aukeratu izana eta obra bera ere, apostu handia izan da. Bestalde, Birginia Imazen laguntza izan dute aktoreen lana eta txontxongiloen erabilpena aurrera eraman ahal izateko.

Taun Taunen "Ubu Babel" Alfred Jarry frantziarraren "Ubu encadenado" antzezlanetik sortutako obra da. "Ubu encadenado" 1900. urtean estreinatu zen baina Joan Baixas zuzendariaren esanetan "gaurkotasuna du oraindik eta beti izango du".

Ubu Babel antzezlan genero komikoaren klasiko



Bergararrek ostiralean aurkeztuko dute beraien azken lana Arrasateko Amaia antzokian.



bat ei da. Zuzendari kataluniarren esanetan, izpiritu ludikoa du eta umore beltza erabiltzen du. Gainera, bereziki txontxongiloendako idatzitako obra bat da eta bere garaian, 1900. urtean, arte eszenikoaren berritasuna ekarri zuen.

Alfred Jarry-ren "Ubu Encadenado" obran oinarrituta dagoen "Ubu Babel" antzezlan aukeratzeko orduan, komedia klasiko bat

egiteko gogoazutela azaltzen dute Taun Taun taldeko kideek. Artista frantziarraren obraren zoramenak eta komikotasunak erakarri ei zituen, baita bere argumentu, elkarrizketa eta pertsonaia bereziek ere. Obra hau egitea erabaki zutenean, era guztietako publikoetara heltzea nahi izan zuten.

Gaur Amaia antzokian eskainiko den txontxongilo emankizun honek, errege izan

nahi ez duen pertsonaia bat aurkeztu du: Ubu. Ubuk morroi izatea nahi du, kateaturik bizi nahi du eta ez du askatasunik.

Ubu Babel obran Itsaso Azkaratek, Iñaki Matak, Karlos Odriozolak eta Karmele Perezek egiten dituzte aktore lanak. Antzerkia gaueko 10.30etan izango da eta sarre-rak 800 ptatan salduko dira takilan. Gazte Txartelarekin 600ean.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,

Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Memesa
79 42 22

KARLOS Bitxitegia



Biteri kalea, 13
ARRASATE
Tfnoa: 79 34 26

INDUSTRIAL TEKNIKO IKASTAROAK

Formakuntza sistema irekia
Multimedia Metodologia - Interaktiboa

- Elektrikari instalatzaile karneta
- Automata programagarriak
- Ordenadorez lagunduriko diseinua.
- Injekzio termoplastikoak
- Elektronika analogikoa
- Elektrizitate industrialia
- Automobilaren diagnostika

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37



**Ventanas
San Miguelekin...
Denean irabaziko
duzu.**

**Erosotasunean
irabaziko duzu.**

**Aurrezpenean
eta energian
irabaziko duzu.**

**Isolamenduan
irabaziko duzu.**

**Konfortean
irabaziko duzu.**



VENTANAS SAN MIGUEL




**Iturriotz, 24 ■ ARRASATE
Tfnoa: 79 78 10**

Z E R N A H I A G O ?

Oskar Vitoria**Bitxigilea**

- **Noiztik bitxien munduan?** Orain dela 15 urte erlojugintzan aritu nintzen eta duela 10 bitxigintzan.
- **Non ikasi zenuen bitxiak egiten?** Bilbon, lehen mailako ofizial bitxigile baten tailerrean.
- **Urrea nahiz zilarra erabiltzen duzu bitxiak egiteko?** Ez, urrea bakarrik. Zilarrarekin konponketak baino ez ditut egiten.
- **Nondik ekartzen duzu urrea?** Nik Bilbotik, maioris-tengandik baina hauek ez dakit nondik ekartzen duten.
- **Harri bitxiak ere erabiltzen dituzu zure diseinuetan?** Bai, esmeralda, rubia, zafiroa...
- **Jendea animatzen da bitxiak egitera?** Sei hilabete baino ez daramatzat tailer honetan eta orain arte ikusi dudanaren arabera, bai, animatzen da.
- **Zein konponketa izaten da arruntena?** Kataiak soldatzea baina egia esan, nik oraindik ez dut batere soldatu.
- **Lotsatia zara?** Bai.
- **Burukoarekin edo buruko barik egiten duzu lo?** Burukoaz.
- **Pijamarekin edo pijama barik?** Pijamarekin, hotz egiten du eta.
- **Espagetiak ala babak?** Babak.
- **Dutxa ala bainua?** Dutxa.
- **Koadroak ala posterrak?** Koadroak.
- **Mendia ala hondartza?** Hondartza.
- **Azokara joan ala Maxira?** Azokara joatea gehiago gustatzen zait, baina Maxira joaten naiz.
- **Herrian ibiltzeko bizikleta ala kotxea?** Kotxea.
- **Zein animalik beldurtzen zaitu?** Txakurrak.
- **Noiz joan zinen azkenekoz elizara?** Abuztuan, hileta batera.
- **Ona zara txisteak kontatzen?** Ez.
- **Irakurtzen duzu komikirik?** Ez.



LABURRAK

Argazki lehiaketako sariak

Joan den ostiralean banatu ziren Udaleko Gazteria sailak antolatutako "Gazteak eta Intsumisioa" argazki lehiaketako sariak Monterronen.

14-18 urte arteko kategorian bi arrasatearrek eskuratu zituzten bi sariak: Gaizka Olabarrietak eta Ion Sagastak. Bi gazte hauek iaiz Lurrats taldeak antolatu zuen "Gazteak Bizikletan" argazki lehiaketako sariak ere eskuratu zituzten. Kategorია hau Deba Garaiko gazteentzat zen bakarrik.

19-35 urte arteko kategoría berriz, estatu mailakoa zen. Txuri-beltzeko modalitatean Sestaoko Javier Izquierdok eraman zuen lehen saria eta bigarrena Madrilgo Javier Agedak. Koloreko modalitatean Nagore Bengoetxea eibartarrak eskuratu zuen lehen saria eta Jose Ignacio Bergara iruñarrak bigarrena.

Lehiaketa honetara aurkeztutako 26 lanak (58 argazki) erakusketa gisa jarri dira Monterronen urriaren 31ra arte.



BITXI LANTEGIA
Zure gustoko bitxiak!

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tfnoa: 77 01 44 ARRASATE




• ESAERA •

“Egunek ez dakizkiten gauza asko erakusten dizkigute urteek”.


RALPH WALDO EMERSON

• JEROGLIFIKOA •



Emakumezkoen izena.

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ohikoa ez dena. 8. Arabako indar politikoa. 9. Airean igeri gelditzen den zemahi gai xehe. 10. Tresnek eskuaz heltzeko duten zatia. 12. (Ald.) Zinematografiaren teknika eta artea. 13. Txitek egiten duten kantuarren hotsa. 15. (Ald.) Behar, zeregin. 16. Ibilgailuen Azterketa Teknika. 17. Erabateko aldaketa handia. 20. (Ald.) Tolodoko ibilgailuetan. 21. Egunaren zati iluna, pluralean.

Bertikalak 1. Uribarren izozkigilearen izena. 2. Kementsu, indartsu. 3. Berba, ele. 4. Ilea-paintzaileak apaintzen du. 5. Zerbait hankazpien indarrez zapaldu. 6. Alfabetoko hamazortzigarren letarren izena. 7. Ongi. 11. Bulgariako mendebaldeko mazizoa. 14. Nafarroako herria. 16. (Ald.) Mahometar izena. 18. (Ald.) Zuek eta ni. 19. (Ald.) Kristoren Aurrekoren laburdura.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez duzu erremediorik! Atsedena behar duzula argi dago.

Taurus Gaizki ulertu baten ondorioz laguna galduko duzu.

Gemini Buruari buelta askotxo eman diezue. Ez hainbeste estutu.

Cancer Ez egin jaramonik merezi ez duenari.

Leo Gau zoriontsuak pasatzen dituzu, baina egunak...

Virgo Familian denbora gutxiegi pasatzen duzu.

Libra Gaisotasun horretatik ateratzeko gutxi falta zaizu. Lasaitu.

Scorpio Auzokoen kontu guztiak aireratzan dituzu eta horrela ezin da.

Sagittarius Ajea kentzeko modurik onena berriro juergan hastea da.

Capricorn Zahartzaroan bizkortxo sartu zara. Kontuz!

Aquarius Oroitzapenek ez dizute aurrera egiten utziko.

Piscis Ahalegindu arren, askotan ez zara iristen.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Gure Objektibotik-en Hiper Eroskiaren eragina asteazkenean eztabaidagai

Azaroaren 19an Hiper Eroskia zabalduko dela eta, merkatalguneak herrian izango duen eraginari buruzko mahaingurua izango da Gure Objektibotik saioan. Ion Iñaki Lasak zuzenduko du mahaingurua eta Eroskiko, Udaleko, Ibai Arteko ordezkari bat eta herriko dendari batek hartuko dute parte. Kalean herritarrei egindako inkesta ere eskeiniko da. Asteazkenean gaueko 9etan izango da mahaingurua.



Imanol Ceciaga futbolari ohia Mondrasporten

Imanol Ceciagak, orain dela urte mordoska batzuk "Divino Primero" ezizenarekin ezagunagoa zenak beteko du datorren asteleheneko Mondrasporteko erreportaia. Gizon honek 68 urte

ditu gaur eta ondo gogoratzen ditu gerra aurreko eta osteko futbol kontuak. Anekdotak ez zaizkio falta ez, eta horiek kontatuko dizkigu Itxaro Zubillagak egin dion erreportaian.



ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Nobedade handirik ez da izango aste honetako programazioan, ohiko programak entzungai, goizez eguneroko albisteak eta Goizoro magazina. Gaez, berriz, 9etatik aurrera, honako pro-

grama hauek: Astelehenean Caravanserai musika programa, asteazkenean KK2A, ostegunean Txerrendantza eta Adi Egon, eta ostiraletan KGB. Astearteko tartea oraindik ez da bete.

SOLUZIOAK

Jergotitikoak:
Elena.
Ail. 18. (Aid.) Gu. 19. (Aid.) K.A.
Ondo. 11. Rila. 14. Iza. 16. (Aid.)
3. Hitz. 4. Ite. 5. Zampatu. 6. Ku. 7.
Bertakak: 1. Eugenio. 2. Zainart.
Iranliza. 20. (Aid.) TO. 21. Gauak.
13. Pio. 15. (Aid.) Lan. 16. IAT. 17.
9. Ilan. 10. Giten. 12. (Aid.) Zine.
Horizontalak: 1. Ezohizkoa. 8. UA.

25 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
Gaiak:

28 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
Erreportaia: Imanol Ceciaga

29 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Lotsa Barik
Gonbidatua: Ines eta Naiara trikitilariak

30 Asteazkena


13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Lotsa Barik errep.
20.00 eta 20.30etan
Berriak
21.00etan
"Gure Objektibotik"
mahaingurua
Hiper Eroskiren eragina
herrian

31 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Gure Objektibotik errep.
19.10etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Kukaratxa Motel

1 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Kukaratxa Motel errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Etxebizitzak

- **Iruñan pisua osatzeko** pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Arrasaten edo inguruan** jantzita dagoen pisu bat alokatu nahi dut. Tfnoa: 79 57 64. Sandra.
- **Donostiako Antiguoa** pisua osatzeko pertsona bat behar du. Tfnoa: 77 00 29 (Josefa) edo 76 44 82 (Jon).
- **Lokala alokatzen da.** 70 m². Ura eta argiaz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da** San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tfnoa: 86 07 86. Alaitz.
- **Arrasateko erdialdian logelak alokatzen dira.** Deitu 79 87 59ra 12etatik 5etara eta 7etatik aurrera.
- **Roneko I ehenengo solairuan** garaje itxia salatzten da. Tfnoa: 79 18 70.
- **Erguin kalean lokal bat salgai.** Tfnoa: 79 18 70.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko,** gela babaka izango luke. Bañez doktorea, 2. 3. ezk., interesatuak arratsaldez pasatu.
- **Pisua salgai Uribe auzoan.** 8. zkia. 4. A. Tfnoa: (945) 44 50 64.
- **Erdiko kalean** pisu bat alokatzen da: 79 18 06.
- **Lokala salgai Erguinen,** orain drogadenda beza la dago. Tfnoa: 79 89 53.

Lana

- **Neska euskaldunak** astegunetan gauetz taberna lan egingo luke. Tfnoa: 79 10 57.
- **Magisteritza daukan neska batek** OHOkoklase partikularrak emango lituzke. Euskaraz edo erdaraz. Tfnoa: 77 10 21.

- **OHO, REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 12 91. Alaitz.
- **FP2 elektronikoko klase partikularrak** hartuko nituzke. Dei egin 16.00etatik aurrera. Tfnoa: 76 16 32.
- **Klase partikularrak** ematen ditut Musakolan. Tfnoa: 79 35 24.
- **Umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: (907) 74 21 00.
- **Magisteritza daukan neska** batek lehen hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako klase partikularrak emango lituzke. 79 26 36. Rakel.
- **Esperientziadun neska** umeak eta nagusiak zaindu eta etxeko lanak egun osoz edo orduka lana egiteko prest. Mirian, 79 31 44.
- **Neska batek lana egingo luke** arratsaldeko 3etik aurrera, etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... 79 93 17.
- **Emakume euskalduna** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 95 92. Pili.
- **Esperientziadun klinika laguntzaileak** umeak edo helduak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.
- **Zure etxea garbitzeko** neska gazte baten bila bazabiltza dei egizu 79 46 82 tfnora.
- **SOS. Lana behar dut.** Emakume gaztea naiz eta bi seme-alaba ditut. Kamarera lana egin izan ditut. Tfnoa: 79 53 18.
- **Majisteritza daukan neska batek** OHOkoklase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 48 64. Ainhoa.
- **Goi mailako industri injinerua** klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 51 03 38.
- **Matematika eta matematika finantzieroko** klase partikularrak bihar ditut. Tfnoa: 79 40 24. Goizez. Libe.

Salerosketak

- **Auto bat salgai:** SS-S Toyota 505 Turbo. Tfnoa: 76 30 01.
- **Bigarren eskuko bizikleta** estatiko bat erosiko nuke. Tfnoa: 79 79 62
- **Italbar markako izotz kubitoak egiteko makina salgai.** Berri berria dago. 79 51 34.
- **R11 TXE gorria salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 43 46. Mikel.
- **Sanyo ECR 375 makina erregistratzailea salgai** dendarako aproposa. Prezioa: 50.000 pta. Tfnoak: 79 25 96 / 79 99 41.
- **Bigarren eskuko bi solarium** 20 lanparaduna salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoak: 74 19 23 eta 74 21 82.

Denetarik

- **Bi katakume** oparitzen ditut. 945 - 44 50 05
- **Bergara-Donosti,** arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tfnoa: 76 46 26 (Nekane).
- **Zure artista sena** ezagutzera eman nahi badituzu (musika, mimika, malabarismoa) bakarka edo taldean, deitu 79 75 93 edo 79 67 12 telefonoetara.
- **Igandean Nafarroa Oinezera** joan zen AEDren autobusean hainbat gauza agertu ziren: makuto berdea, txamarra baten mangak, eta Los Panchosen zinta bat. Zureak badira pasatu AEDtik jasotzera.
- **Foruen Plazan gabardina bat agertu da.** Emakumezkoena eta grisa. Tfnoa: 79 50 79.
- **Ortodontzia aparailu bat galdu da Erguin-Larrea** inguruan. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 79 30 54 tfnora. Saritu egingo da.
- **Tarot kartak irakurtzen ditut.** Tfnoa: 79 82 55.

Aste Gazte

Bekak

• HAEE - IVAPek, Euskal autonomi Elkarteko administrazio publikoen hizkuntza-normalkuntzari buruzko gaiak ikertzeko bi beka berritarako deia egin du. Eskaera epea: azaroak 5.

• Lan eta Ekonomi Sustapen Sailak, Europar Batasunari buruzko azterlanak eta ikerlanak egiteko bi beka kaleratu ditu. Zuzenbide nahiz Ekonomi zientziarako lizentziatu eta Europa eta nazioarteko gaietako gradu-ondoko titulazioa dutenei zuzenduta. Epea: azaroak 8

• Kultura eta Hezkuntza Ministeritzak, 1997-98 ikasturterako Estatu Batuetan ikasketa artistikoak zabaltzeko beka deialdia luzatu du. Epea: azaroak 15

Lana

• Beasaingo Udalak administrari-laguntzaile bat kontratatuzko deialdia egin du. Eskariak luzatzeko epea laster zabalduko da.

• Euskal Herriko Unibertsitateak lanpostu desberdinak kaleratu ditu: a) Unibertsitateko katedradun bat; b) Unibertsitateko 32 irakasle titular; c) Unibertsitate

Eskolako Katedradun bat eta d) Unibertsitate-eskolako 14 irakasle titular. Informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

• Ipuin lehiaketak: a) Eibar-kohiria, Gazteen XII Ipuin Lehiaketa, euskaraz eta gaztelaniaz. Epea: azaroak 22. b) "Gordexolako harana" Ipuin Lehiaketa. Epea abenduak 9.

• IX. Bilboko Pop-Rock lehiaketa, bertako Udalak antolatuta. Euskal Komunitate Autonomo nahiz beste komunitateetako pop-rock edo heavy musika taldeei zuzenduta. Epea: Abenduak 30.

"Heltzeak zure burua ezagutzea esan nahi du, bai eta zure denboraren segundu bakoitza ondo aprobetxatzen ikastea ere"

Laura Graciano IZAZLEA "COSMOPOLITAN"

Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Zergatik aukeratzen dut CLARINS? Erosi aurretik probatzen dudalako!

CLARINsek erosi aurretik
probatzera animatzen nau,
neronek emaitzak
egiaztatzeko.

CLARINS salmenta toki batera
hurbildu besterik ez duzu.

Eskatu zure aurkikuntza
kutxa * oraintxe bertan.

LORE

lurrindegia
Olarte, 10
Tfnoa: 79 52 50
ARRASATE

Clarinssek ez du miraririk
egiten, emaitzak
erakusten ditu

Emakume bakoitzarendako edertasuna

Clarinssek lurrindegia
espezializatuak aukeratu
ditu, edertasunaren
aholkulariak, benetako
espezialistak, modu
konpetente eta erraz baten
aholku pertsonalizatu
onena ematen dutelako.



CLARINS marka serioa da.

Landareen kontzentrazio
altuenaz landutako
produktu natural eta
benetakoak eskainiz.

Clarinssek beti eskaintzen
dizkit bere produktuak
prezio onean.

CLARINsek zera proposatzen dit:

Nire aurpegia, gorputza eta
bularrak zaintzeko
tratamenduak.

Azala zaindu eta giroan
dagoen kutsaduraz babesteko
makilaje natural eta bizia.

Clarinssek berme guzti hauek
eskaintzen dizkit.

*Operazio honetan parte hartzen duten CLARINS
salmenta puntu guztien ezakinei loturik.

CLARINS

— PARIS —

Esperientzia eta eraginkortasuna
edertasunaren zerbitzura

1997

MAVERICK


4x4



Espazioa eta erosotasuna.



Air-Bag.



125 zaldiko Turbo Diesela.

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • Tfnoak: 79 07 44 / 54 • ARRASATE

